

ZUMAIA / Helduengan euskara sustatzeko ekimenak aurkeztu ditu Udalak

‘Bookcrossing’-ean oinarritutako ‘Liburulibre’ ekimena jarri dute abian eta udal batentzat nahiko berritzailea dela diote

Aritz Mutiozabal

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren barruan, uda bitartean garatuko dituzten ekimenak aurkeztu zituzten atzo eguerdian Zumaiako alkate Maria Eugenia Arrizabalagak eta Euskara Zerbitzuko kide diren Josune Herrartek eta Xabier Azkuek. Guztira, euskara ardatz duten zazpi jardueren berri eman zuten; batzuk abian jarri dituzte jada eta beste batzuk, hemendik gutxira izango dira martxan.

Ekimen hauen helburua pertsona helduengan eragitea dela nabarmendu zuen Arrizabalagak: Orain dela pare bat hilabete aurkeztu zen euskararen kale erabilerako azterketan ondorio nagusi bat atera genuen: helduok erabiltzen dugula gutxien euskara. Beraz, horretan oinarritu gara ekimen berri hauek lantzeko orduan.

Aurkeztutako ekimenen artean, neurri batean berritzailea den Liburulibre izenekoa dago. Bookcrossing delakoan oinarritzen da eta ideia lehendik ere hainbat tokitan abiatu badute ere (esaterako, Zumaiako Institutuan), guk dakigunez, behintzat, gainerako udalek ez dute halakorik martxan jarri, adierazi zuten.

Euskarazko 30 liburu jarri dituzte eskuragarri herriko hainbat lekutan, eta hauek Liburulibre logotipoa eramango dute. Liburuak euren ohiko lekuetatik kanpo egongo dira, liburutegitik kanpo, baina herritarrek egunero ibiltzen diren lekuetan aurkitu ahal izango dira: anbulatorioan, musika eskolan, KZgunean, Gaztetxolan edo kiroldegian, besteak beste.

Edozein zumaiarrek har ditzake liburuak etxean irakurtzeko. Liburu bat hartzerakoan, ordea, www.zumaia.net/liburulibre helbidera sartu eta liburuak non eta noiz hartu den idatzi beharko dute erabiltzaileek. Irakurritakoan, nahi den lekuan utzi, eta non eta noiz utzi den adierazi beharko dute webgunean. Horrela, liburu bakoitzaren jarraipena egiteko aukera izango dugu, adierazi du Josune Herrartek. Era berean, liburuei buruzko iritziak ere jarri ahal izango dira bertan.